

CONCURSO LITERARIO JUVENIL DE PAMPLONA IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA 2019

EUSKERA POESIA 14-16 URTE

LEHENENGO AKZESITA:

Amilduz

Julen Garcia Uriaque

Zure barruan galtzera
behartuta ikusten zarenean,
ezin zara atera kanpoko ikustera
hura egiteko gai ez zarela oharztean.

Ausardiak bere lekua galdu zuen,
eta ordudanik zabilta itota,
kanpotik zure azal biluziaren
tanta hotzak ahaztuta.

Betiko galdurik geldituko zara,
buru eta gorputz barik,
zeu sentitzen zinen uneetara
ez dago atzera bueltarik.

Egonezina egon bada,
orain oihukatzeari utzi diozunean
denborak ez du garrantzirik jada,
minak muga gainditu duenean.

Begi itxien atzean, sentitzeari
uztea desiratzen duzu,
non zauden ikusteari
momentu honetan utzi diozu.

Betiko galdurik geldituko zara,
buru eta gorputz barik,
zeu sentitzen zinen uneetara
ez dago atzera bueltarik.

Zure gorputza bortxatu zuten horiek
infinitura bota zintuzten,
baina zure pentsamenduek
airean hegan egitea erabaki zuten.